

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure helburu nagusia jendearen jateko ohiturak aldatzea da. Horretarako lau jarduera nagusi ditugu: jatekxean eskaintzen diren menuak, tailerrak (udan haurtxoko) eta autokarabanentzat eskeinitako zerbitzuak eta produktuen salmenta. Hauek aurrera eramateko baratzaren eta sare sozialen kudeaketa dugu beharrezkoa. Hona hemen jarduera bakoitzaren azalpen zehatza:

- **JATETXE ZERBITZUA.** Denboraldiko produktuez baliatuz, astero menu ekologiko berriak eskeiniko ditugu. Produktu tradizionalak sukaldatzeko teknika berritzaileekin elkartuko ditugu.



- **TAILERRAK/ UDAKO HAURTXOKOA:** Urtean zehar jateko ohitura osasuntsu zein sukaldaritza ekologikoa sustatzeko tailerrak emango ditugu hizkuntza ezberdinetan, Gauza bera egingo dugu udan haurrentzat. Gainera, irteerak antolatuko ditugu eta baratzaz baliatuz tailer didaktikoagoak eskeintzeko aukera izango dugu.



- **AUTOKARABANENTZAT EGOKITUTAKO PARKING-A.** Parking bat jarriko dugu non autokarabanak haien depositoak hustu eta bete ditzaketen. Gainera, jatekxean kontsumitzen badute parking-ea gau bat dohainik pasa dezakete.

- **SALMENTA GUNEA.** Salmenta gune bat izango dugu ere eta bertan soberan ditugun produkzio propioiko produktuak eta hornitzaile lokalen produktuak salduko ditugu.



Esan bezala, jarduera hauen atzean beste batzuk daude eta beharrezkoak dira gure produktuen kalitatea eta bezeroekiko harremanak bermatzeko:

- **BARATZAREN KUDEAKETA**
- **SARE SOZIALEN KUDEAKETA**